

PRENTSA
OHARRA**BOOK SPRINT BAT EGINGO DA TALDELANEAN
"KODE IREKIKO PRAKTIKA KULTURALEN
DEKALOGOA" IDAZTEKO**

Urtarrilaren 27tik 31ra, Tabakalera esperimendu berri batean murgilduko da: estatu mailan egingo den lehenengo **Book Sprint**-a antolatu dugu. Eta, zer da Book Sprint bat? 3-5 egunez pertsona talde bat elkartzen duen aktibitatea da, elkarbizitza eta lan-saio intentsiboen bidez, modu kolaboratiboan eta dinamizatutako prozesu baten bitartez, liburu bat idazteko helburuarekin.

Horixe da Tabakalera egin duen apustua. Euskal Herritik zein estatuko hainbat txokotatik etorritako **12 gonbidatu**, guztiak kultura garaikidean, kultura librean, artean, teknologian, arte- eta gizarte-praktika berrietan... adituak, bost egunetako elkarbizitza egingo dute, **"Kode irekiko praktika kulturalen dekalogoia"** izenburua izango duen liburua idazteko helburuarekin. Horretarako, **Booki** (<http://www.booki.cc/>) izeneko tresna erabiliko dute, online ediziorako plataforma bat, taldean idatzeko aukera eskaintzen duena.

Book sprint lan-metodologiaren **helburu nagusiak** hiru dira:

- Liburu bat ekoiztea: prozesuaren amaieran, emaitza gisa liburu edo eskuliburu bat izango dugu.
- Ezagutza sortu eta partekatzea: edukiak banaketa librerako lizentziapean argitaratu eta partekatuko dira.
- Taldean beste modu batzuk esperimentatzea: taldean sortzeko prozesu hau gozatu eta irakaspenak ateratzea.

Topaketa ostegunean abiatuko da, orduan iritsiko baitira gonbidatu guztiak. Aurkezpen saioaren ostean, idazketa lana ostiralean hasiko da eta astelehenera arte iraungo du. Behin bost egunak igarota, bertsio digitalean eskuratu ahal izango den liburu edo eskuliburu bat edukitzea da topaketaren helburua. Eta aurrerago, seguruenera, liburua paperean ere argitaratuko da.

Jarduera hau antolatzeko Bilboko **ZAWP** Sorkuntza Fabrikaren laguntza izan dugu.

Zergatik "Kode irekiko praktika kulturalen dekalogoia"?

Bada denboralditxo bat Internet-iraultza deitzen den horrekin lotutako paradigma kultural berri batez hizketan hasi ginela. Batik bat web sozialaren eztegiaren ondorioz, azken urteotan sormen-, gizarte- eta kultura-praktiketan gertatutako eraldaketa prozesua azkartu egin da. Orain ikuslea erabiltzaile eta sortzaile-kide da. Ekoizpen, hedapen eta banaketarako espazioak ere *beste batzuk* izaten hasi dira eta espazio esperimental sare bat osatzen hasia da, kulturaren eta artearen zikuitu tradizionalen alternatiba izan nahi duena.

Gure lan egiteko ohiturak aldatu egin dira, baita komunikazio ohiturak eta, seguruenera, gure pentsakera ere. Baina lilura eta presa horren aurrean, premiazkoa da gelditu eta zenbait gauza



idatziz jarri eta partekatzea. Hau da, elkar-ulertzen eta zaharkiturik geratu den eta eraldaketara ohitzea kostatzen zaion makineria olioztatzen lagunduko diguten zenbait oinarri ezartzea.

Egiletza eta copyright-aren inguruko borrokak, informazioaren eskuragarritasunean hobekuntza eskaerak, publikoa den horren kudeaketan gardentasun eskariak, esparru politikoan parte hartzeko gaitasuna handitzeko beharra, hezkuntza sistemak zalantzan jartzea, espazio publikoaren (fisikoa eta digitala) erabileraren inguruko gatazkak, informazioaren eta gure eta geure gorputzen gaineko kontrolaren borroka... horiek dira, besteak beste, egungo gizartean puri purian dauden tirabiretako batzuk. Eta horiek dira eztabaidaren ardatz bilakatuko diren abiapuntuetako batzuk, erabiltzailearen eskuliburu itxura izango duen gogoeta eta ekarpen teoriko bat sortzeko saiakera honetan.

Jardueraren jarraipena www.10penkult.cc eta [#10penkult](https://twitter.com/10penkult) bitartez

Astearen hasieratik martxan da proiektuaren bloga: www.10penkult.cc. Bertan, Book sprint metodologiari eta jardueraren helburuei buruzko informazio osatua jasotzen da eta baita egun hauetan zehar proiektuaren inguruan jaso diren hainbat ekarpen ere. Jarduera berritzaile honek eta bertan jorratuko diren gaiek sortu duten ikusminaren erakusgarri da, batik bat, twitter sare sozialean eragin duen aktibitatea ([#10penkult](https://twitter.com/10penkult) etiketaren bitartez). Berrogeita hamar pertsona baina gehiagok twitter bidez euren ekarpenak egin dituzte, liburuaren idazketarako interesgarri izan litezkeen ideia eta kontzeptuak proposatuz, eta beste hainbeste egin dute hogeit hamar pertsona baina gehiagok emaila erabiliz. Ekarpen horiek guztiak ere ikusgai daude dagoeneko gorago aipatutako blogean.

Gaur bertan, asteazkenarekin, itxiko da ekarpenak jasotzeko deialdia eta bihartik aurrera ekarpen guztiak batu eta antolatuko dira liburuaren idazketarekin hasteko abiapuntu gisa erabil daitezten. Idazketa prozesuak iraungo duen bost egunetan zehar, blogean zein twitter bidez egingo da jardueraren jarraipena.

LIBURUAREN IDAZKETAN PARTE HARTUKO DUTEN PERTSONEN ZERRENDA:

- **MARGA PADILLA** Ingeniari informatikoa da. Beste hacker batzuekin batera Sindominio.net sortu zuen. Ekintza politikoari buruz eta komunikazioaren teknologia berriei buruzko hainbat artikulu argitaratu ditu. www.dabne.net -en egiten du lan, software librean oinarritutako proiektuen garapenean.
- **MARÍA PTQK** Kultur ekoizlea eta ikerlaria da. www.ptqkblogzine.blogspot.com
- **TXELU BALBOA** AMASTÉko kide da. AMASTÉ ideia bulego bat da, irudimen aktiboa eta espiritu kritikoa sustatzeko bitartekaritza, harreman eta parte-hartze prozesuak garatzen eta artikulatzen espezializatua. Egun, ColaBoraBora proiektuan dabil burubelarri, “prokomun”-aren, praktika kolaboratiboen eta kode irekiaren gainean lanean. www.amaste.com / www.colaborabora.org
- **SOFÍA COCA** Kazetaria den arren, bere jarduna bitartekaritza eta kultur ekoizpenari lotua egon izan da. ZEMOS98-eko kide da 2005az geroztik. Bertan, hezkuntzarekin, komunikazioaren, ikus-entzunezko kulturarekin edota kultura digitalarekin lotutako edukiak ikertu, programatu eta ekoizten ditu. www.ZEMOS98.org/preescolar



- **JUAN FREIRE** Biologoa, unibertsitateko irakaslea eta ekintzailea. Honako gai hauen inguruko ikerketan, ahokularitzan, diseinuan, inplementazioan eta proiektu kudeaketan zentratzen da bere jarduna: ingurugiro-, hiri- eta lurralde kudeaketa; kultur kudeaketa eta ekoizpena; kultura digitala eta hezkuntza. www.juanfreire.net
- **JOSÉ LUIS DE VICENTE** Kultur ikertzailea da. Bere lanak kultura, diseinua, teknologia eta berrikuntzaren arteko sormen esparrua arakutzen du. 2007az geroztik, Visualizar Medialab Prado programa zuzentzen du. Bartzelonako ZZZINC, Oficina de Investigación en Innovación en Cultura-ko sortzaileetako bat da. MNCARS, LABoral, CCCB... gisako erakundeetan hainbat erakusketa, jaialdi eta mintegiren komisario izana da. www.zzzinc.net
- **JARON ROWAN** Ikerlaria, irakaslea, YProductions-eko (www.ypsite.net) sortzaile-kidea eta Free Culture Forum-eko kidea da. Kulturaren ekonomian espezializatua, ikuspegi kritikoa batetik lantzen ditu politika kulturalak, kultura-industriak eta sektore horretako lan ereduak. www.demasiadosuperavit.net
- **MARTA G. FRANCO** Kazetaria eta aktibista da. Diagonal egunkarian egiten du lan. Komunikazioarekin, feminismoekin, kultura librearekin eta autonomiarekin lotutako ekimen hacktibista, digital zein analogikoetan parte hartzen du. Web sozialari buruz ikertzen du Lorea/N-1 proiektuan. www.discoslibres.wordpress.com/
- **JARA ROCHA** Kultura-bitartekaria da. Ikus-entzunezkoen alorrean, arte garaikidean, new mediatan eta kultura librearen esparruko zenbait proiektutan parte hartutakoa da, hala nola, Elegantomob Films, red LABtoLAB, La Prospe edo Medialab-Prado. Azken honetan Género y Tecnología ikerketa taldearen sustatzaile izan zen. www.masterdiwo.org/
- **KAMEN NEDEV** Kultura-ekoizlea eta komisario independentea da. Tarteka idatzi ere egiten du. Egun, Bookcamping-eko lantaldeko kide da. www.waitingforcargo.net
- **PEDRO SOLER** Ibilbide profesional oparoa osatua du sortzaile eta kultura-aztoratzaile gisa. Multimedia, artea eta antzerkiarekin lotutako hainbat ekimen garatu izan ditu, besteak beste, Fiftyfifty, Dadata, Didascalie.net edo GISS.tv. 2011. urtean zehar Plataforma Cero garatu eta martxan jarri du, Gijongo LABoral arte zentroaren baitan sortutako arte ekoizpen eta ikerketa zentroa. www.root.ps/
- **SUSANA SERRANO** kultura ikerlaria da, teknologien erabilera soziala eta sormenezkoa erabiltzen duten praktika artistikoetan espezialista. Blogger kultural gisa egindako ibilbidea, zeharlerroa da bere garapen profesionalean. Bereziki interesatzen zaizkio software librearen mugimenduari eta kultura libreakin loturik sortzen ari diren “kode irekiko” praktikak. www.susanaserrano.cc/

Donostia , 2012ko urtarrilak 25

Info +:
komunikazioa@tabakalera.eu
943011311
www.tabakalera.eu